

# noaua

**Ostiral honetan abiatuko da Dantza Egunari lotutako kultur egitaraua**

**Udala eta Matia: “Pandemiak zaintza eredia aldatzeko premia areagotu du”**



**“Erraustegiaren kutsaduraren kontrola modu fidagarrian egin ahal izango dugu datozen urteetan”**

Usurbilen,  
zure auto-tailerra



# Atallu

AUTOAK

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua

DOHAINIK



Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

# LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA



Osasun neurri guztiekin  
zuen zerbitzura

-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserría, EREÑOTZU-HERNANI  
Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867



# ORIANTE

Institutua



ON-LINE /  
IKASTETXEAN  
Apirilaren 12tik 23ra

*Pertsonengan  
errotutako egitasmoa:  
ikaslearen garapen  
integrala ardatz*

- ✓ Zientziak eta Teknologia
- ✓ Giza eta Gizarte Zientziak

2021-2022  
ikasturtea  
BATXILERGOA

✓ Publikoa

943 89 94 94 943 89 94 92 [www.oriarte.eus](http://www.oriarte.eus)

## Albisteak iruditan

## Entsegu eguna Aginagan

**D**antza Eguna asteburu honetan ospatuko da Usurbilen. Orbeldi Dantza Taldeak ikuskizun berri bat eskainiko du larunbat arratsaldean Oiarde kiroldegian. Pasa den igandean, ikuskizunaren entsegu orokor irekia egin zuten Aginagan.

Dozenaka dantzarik eta zenbait musikarik osatutako "Zorotan Bele" ikuskizunaren entsegu izan zen igandekoa. Sorotan Bele musika talde ezagunaren abestiak prestatu zituzten Santueneko bandako ki-deek, eta melodia horientzat dantza ikuskizuna prestatu zuten hainbat dantza taldek. Euskal dantzetan oinarria badu ere, dantza garaikideak bere lekua du ikuskizun honetan (sarri biak uztartuta, gainera).

Pako Agudo herritarrek ikuskizunari ipuin antza eman zion, ipuin-kontalari bailitzan abestien arteko trantsizio ederra eraikiz. Giro ederra du promes aste honetako ikuskizunak.



Orbeldi Dantza Taldeko dantzariak Aginagako kiroldegian aritu ziren aurreko igandean.

## Egitarau oparoa

Zorotan Bele ez da Dantza Egunaren baitan egingo den ekitaldi bakarra izango. Ostiral honetan, "Euskal Dantza eta generoa" hitzaldia eskainiko du Oier Araozak, arratsaldeko 19etan Sutegin. La-

runbatean, *Tranpaldo* irekia egingo dute Artzabalgo plazan arratsaldeko 16:30etik aurrera eta 19:30ean *Zorotan Bele* ikuskizuna Oiarde kiroldegian. Amaitzeko, igandean *Mutu* dantza ikuskizuna Sutegin, arratsaldeko 18:00etan.

## Laburrean

## Usurbilen ez dute itxiera perimetrala ezarriko

Gutxigatik izan bazen ere, Usurbil ez zen eremu gorrian sartu astelehenean. Aurreko asteburuan bina kasu positibo atzeman zituzten eta intzidentzia-tasaren 400eko muga segitzen du gure herriak. 396,32koa zen astelehenean.

## Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilteta berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

## Apirilaren 27an, bilera Txokoalden

Txokoaldeko udal-ekipamendu berriaren lanak amaitzeaz dira. Horren harira, auzotarrekin bilera deitu du Udalak: apirilaren 27an asteartea, arratsaldeko 18:30ean, elkarte aurreko plazan. Aztertuko diren gaiak: antolaketa eta irekiera.

# noa.ua

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noa.ua.eu ||| www.noa.ua.eu  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitate@noa.ua.eu

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noa.ua.eu



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



Ugaitz Agirre Zapirain

## Jon zaharra

Udaberriarekin ernatu ziren loreak. Zelai berdeak puntu zuriz iratzarri zituen egunak eta zuhaitzen jantzi orlegitan txoriak ezkutatu ohi ziren txio-txioka. Guretzat udaberririk ez zen etorri, ordea. Gure gorputz urratuetan ez zen zelairik loratzen, krater eta pitzadurak antzuegiak ziren bizitzaren gurpilearekin jarraitzeko.

Gaua jauzi zen eta Jon zaharrak Norvegiako printzesa salbatu nahi zuen. Hura inoiz esan zuen txepuka handiena zen, eta hala ere, ez zion inork burutik kenduko halako inozokeria. Baina bera zen gure gidaria, eta ez ziren merke ordaintzen halako aurpegiatzeak. Metropolian Norvegiako printzesaren bila hasi ginen Jon zaharraren jopuak.

Benetan horrorxou izaten zen gaua baldin eta Jon zaharraren burutazioak surrealismoa gaintzen bazuten. Norvegiako printzesa haren aita izango zen erregeak bahitua zuela esan zigun moloko likoretan itota ia. Norvegiako erregea akabatu behar genuen, gizatar sasikume lodikotea. Sabela asetzen aski lan zituen, eta seguru ezin izango zuela gaua bere gaztelutzarretik irten gabe geratu. Koipeak ezpain ertzetatik behera behar zuen izan,



"Metropolian Norvegiako printzesaren bila hasi ginen Jon zaharraren jopuak".

### UGAITZ AGIRRE

**"Sartu ginen autoan.  
Ni bolantean,  
Jon zaharra alboan.  
Eta atzean beste hiru  
jopuak, zein baino zein  
perbertsoagoak"**

irudietan higuigarriena eginik bere aurpegi nardagarria.

Sartu ginen autoan. Ni bolantean, Jon zaharra alboan. Eta atzean beste hiru jopuak, zein baino zein perbertsoagoak. Jon zaharrak horrela nahi izaten zituen, moloko likorez lepo, itsu parean izango zutena jipoitzeko eta dantza eta irri artean txiza egiteko jipoituen gainean. Jopuak jipoira lotuak baikinen. Aitzur, aizkora, kate edota auskalo zer gerriaren bueltan, gauze metropoliko kaleak hartzen genituen gure bortxa ase-ezina askatzeko.

Autoa kolpean geratzeko agindu zidan Jon zaharrak janari-lokal batetik tripa erdia kamisetaren kanpoan zeraman gizonkotea atera zenean lursagar frijituen koipea oraino saltxitxak ziren hatzetan irristan behera. Norvegiako errege doilorra hura zela-eta, autotik atera zen. Erreberentzia ironikoan itaundu zion ea non ezkututzen zuen alaba maitea. Lodikoteak mozkor zorotzat harturik Jon zaharra, harpa jotzera beste norabait joan zedila iradoki zion. Jon zaharrak bere pantomiman jarraitu zuen, baina, geroz eta hurbilago monarkagandik, eta hirugarrenez popatik hartzera bidali zuenean, bizkar atzean gordetzen zuen aitzurrarekin danba kolpatu zuen lehenik, eta lurrera eroritakoan, boten metalezko puntarekin. Zinez horrorxou pasatzen zuen horrelakoetan, eta bere abisua-

rekin, beste jopuak festara batu ziren. Nik autoan jarraitu nuen, erne, polizia-aren sirena hotsak entzunez gero, kideak bildu eta ihesari ekiteko.

Gauak aurrera egin bezala, jipoitu genituen Norvegiako errege titulua izan zezaketen sei gizajo. Tartean emazte bat Jon zaharrak aitzurraren makilaz gain jo zuena. Hura zen gure errutina: eguna joan eguna etorri jipoitu genituen izatearen perfumerik merezi ez zituzten denak. Halere, ez ginen asetzen. Bandoa aukeratzeko eskatu ziguten eta guk gure propioa sortu genuen. Munduak ez zuen gure izate axolagabearekin ezkontzen, eta gure axolagabekeria ipurdiko grano batean itzultzen zen. Bortxa oro kondentatzen gonbidatu gintuzten podiumera, baina parafernalia guzti hari kiratsa zerion eta behi gorotza jaurtiz egin genuen gurearen apologia.

Norvegiako printzesarik ez genuen aurkitu gau hartan, eta moloko likorearen efektua lausotzen joatearekin batera, etxerako bidea hartu genuen jopu bakoitzak. Eguzki printzak nabari zitezkeen urrunean, eta Jon zaharra bere etxean utzitakoan, irri artean zera esan zidan: "Bihar ere ilunduko dik, oi lagun maitea, eta izango duk printzesarik salbatzeko".


Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

### Komikia



# Hondakin kopuruak behera egin zuen 2020an

Atez Ateko bilketaren 2020ko datuak argitaratu ditu Usurbilgo Udalak: hiri hondakin kopuruak, aurreko urteekin alderatuta, apur bat jaitsi da, 129 tona gutxiago: 3.141. tona izan ziren 2019an, eta 3.012 tona 2020an. Horrez gain, gaikako bilketa bere horretan mantendu da, %86an, eta errefus kopuruak koska bat egin du behera, 2019an baino tona bat gutxiago bildu baita. Balantze ekonomikoaren datuak jaso bezain pronto argitaratuko du Udalak 2020ko datuen txosten osoa.

Gaikako azterketa eginda, kale garbiketaren bildutako errefusa nabarmen murriztu da: 48,02 tona, 2020an; 83 tona,

2020 (Tn)	2.020	kg/bizt. urte
Autokonposta /Auzokonposta	134,95	21,39
Organikoa	757,32	120,06
Papera eta kartoia	427,66	67,80
Ontzi arinak	273,82	43,41
Beira	216,49	34,32
Industria guneeetako gaikako bilketa (Egurra, filma, plastikoak, poliespana)	205,96	32,65
Besteak		
Pilak	0,70	0,11
Ehunak	68,17	10,81
Etxeko olioak	4,70	0,74
Garbigunea	494,30	78,36
<b>Gaika kudeatutakoa guztira</b>	<b>2584,07</b>	<b>409,65</b>
Errefusa	380,56	60,33
Kale garbiketa	48,02	7,61
<b>Errefusa guztira</b>	<b>428,58</b>	<b>67,94</b>
Kudeatutako Hiri hondakinak	3012,65	477,59
<b>Gaikako kudeaketa (%)</b>	<b>%85,77</b>	

Covid-19ak baldintzatutako lehenengo urtea izan da 2020a, eta horrek ere eragina izan du hondakin bilketan.

2019an. Etxeetan jasotakoak, ordea, nabarmen egin du gora: 53 tona, 2019an; 73 tona, 2020an. Industria jardueran, berriz, murrizketa txikia izan da. Hala ere, guztira jasotako errefus kopuruak 2019koaren antzekoa izan da.

## “Gaikako bilketaren emaitzak oso ona izaten segitzen du”

Udal teknikarien esanetan, biohondakinak nabarmen murriztu dira. Ostalaritza jardueren murrizketaren ondorio, ziurrenik. Covid-19ak baldintzatutako lehenengo urtea izan da 2020a, eta horrek ere eragina izan du hondakin bilketan. Dena den, teknikariaren esanetan, “gaikako bilketaren emaitzak oso ona izaten segitzen du”.

## Ika-mika

# Lauzpabost urte

Antonio Turiel izen handiko zientzialaria, energia-baliabideen eskuragarritasunari buruzko ikerketa-lanagatik, eta Petrolioren Gailurraren gaian aditua izateagatik, Senatuko batzorde batean izan zen apirilaren 12an Madrilen. Mintzaldi hori Youtube ikus daiteke (Turiel Senatuan).

Antonio Turiel 2020ko urrian argitaratuko “Petrocalipsis” liburuaren egilea da.

Senatuan egindako hitzaldian, Antonio Turielek, 2018ko azaroaren 13ko ENA Energiaren Nazioarteko Agentziaren datu ofizialetan oinarrituta, petrolio ugariaren eta merkearen aroa amaitzeaz zegoela jakinarazi

zuen. Txosten horretan, ENAK ohartarazi zuen 2025. urterako 34 milioi upel/egun petrolio-ekoizpenaren defizita egon daitekeela. Hau da, 4-5 urteko epean, petrolio-ekoizpenaren %34ko defizita izango dugu, eta horrek hainbat sektore ekonomikoetan (garraioa, industria, turismoa, energia...) eta elikadura-horniduran eragin handia izango du.

Gogoan izan gure energia-mendekotasunak behar dugunaren %85 gainditzen duela.

Antonio Turielek egiten dituen txostenetan, zibilizazio-krisi batean gaudela ondorioztatu du. Bizi dugun momentuaren larritasunaz jabetu behar dugu;

izan ere, ez dago erakunde publikorik, ez Europar Batasuna, ez estatu espainiarra, ez Eusko Jaurlaritza, ez Gipuzkoako Foru Aldundia, ez eta Usurbilgo Udala bera ere, 4-5 urte barru gure inguruan dagoen tsunami ekonomiko eta sozialaren aurrean egoerari aurre egiteko prestatzen ari denik.

Gogoratu behar da joan den urteko ekainaren 25ean Usurbilgo Udalaren osoko bilkuran mozio bat eztabaidatu zela. Mozio horretan, Usurbilen bizigaren 7.000 pertsona inguruk elikaduraren autohornikuntzarako azterketa aurkeztu zen. Azterketa horren arabera, 64 hektarearekin urte osoan hornituko

ginateke gure nutrizio-beharri-zanetan. Alkatetzak eta Udalbatza osatzen duten zinegotzi guztiak baztertu egin zuten azterketa hori, eta aitortu zuten ordezkari politikoko eta udal teknikari batek ere ez zuela azterlan hura.

Orduan, bi aukera ditugu: gure etorkizunari buruzko erabakiak Udalbatza osatzen duten 13 pertsonen esku uzten jarraitzea, edo autogestionatzeko eta lanean hasteko gaitasuna berreskuratzea, elkarri lagunduz, urte gutxiren buruan gertatuko zaigunaren aurrean prestatu eta gai izateko. Aurrera Gttunk.

Gabi Valin.

  
**ADA**  
-MASAJEAK-  
633 36 22 33  
erreka-txiki 1, USURBIL

*Usurbil Autoak*  
**MEKANIKA-KARROZERIA**  
*SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!*  
  
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA  
943 36 10 79

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

# “Pandemiak zaintza eredia aldatzeko premia areagotu du”

Udalak eta Matia Fundazioak zaintza ereduari buruzko parte-hartze prozesu bat abiatuko dute. Erakundeak, zaintzaren sektoreko partaideak eta komunitateko eragileak batu nahi dituzte egitasmo honetara. Aurreko astean Potxoenean eginiko aurkezpen ekitaldian hainbat xehetasun eskaini zituzten.

Agurtzane Solaberrieta alkateak azaldu zuenez, hainbat dira halako parte-hartze prozesu bati ekiteko arrazoiak. Batetik, urte luzeetan Udalak eta Matiak izandako elkarlana dago, Matia Kalezarren eraikitzen ari den zaintzadun etxebizitzaren auzunearen proiektuarekin areagotu dena. “Proiektu berritzailea eta aitzindaria da Euskal Herrian, bai alderdi sozialetik bai hirigintza arlotik, izan ere, Matiak adineko pertsonen zuzendutako arreta-eredu berri bat praktikan jarriko du, halaber beharrezkoa den joan behar izan duen pertsona etxean bezala senti dadin lortzeko”. Proiektu horren harira, bi erakundeak lantzen ari diren hitzarmen soziala azpimarratu zuen alkateak, “pertsona ardatz duen arreta-ereduaren eta zainketen ikuspegi komunitarioa barnebilduko dituen”.

## Begirada feminista eta antirrazista

Bestetik, Emaginek eskualdeko berdintasun teknikarien eskariz egindako Beterri Buruntzako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintza plana aipatu zuen Agurtzane Solaberrietak. Haren esanetan, parte-hartze prozesuari heltzeko ezinbesteko oinarria finkatu du lan horrek: “Zaintzaren gaiari ekonomia feministaren oinarrietatik heltzen dio, begi-



“Usurbildarrok nola zaindu nahi dugu? Nola zainduak izan nahi dugu?”. Udalak eta Matiak sustatu duten parte-hartze prozesuak galdera hauek izango ditu abiapuntu.

## ZAINTZAREN GARRANTZIA

**Pandemiak ispiluaurrean jarri gaituela dio alkateak. “Inoiz baino gehiago ikusi dugu zaintzaren eta elkar-zaintzaren garrantzia. Zaintzak direla gainerako guztia gelditu den bitartean gelditu ezin izan den hori”**

rada feminista eta antirrazistatik, eta zaintza-erregimenari buruzko argazki zehatza eskaintzen digu”.

Usurbilgo alkatearen esanetan, pandemiak “ispiluaurrean jarri gaitu, biluzi, gure krisiak azalarazi ditu, gure miseriak, hauskortasunak eta sistema honen zelan. Inoiz baino gehiago ikusi dugu zaintzaren eta elkar-zaintzaren garrantzia. Zaintzak direla gainerako guztia gelditu den

bitartean gelditu ezin izan den hori”.

## Beharren eta baliabideen arteko desoreka

Zaintzaren garrantzia ez ezik, egungo eredia aldatzeko beharra agerian utzi du Covid19-ak: “Ikusi dugu zer nolako desoreka dagoen herritarren zaintzarako beharren eta zaintzeko baliabideen artean, eta ikusi dugu horren kaltea emakumeok ordaintzen dugula, izan etxean, izan eremu pribatuan, izan eremu publikoan. Ikusi dugu zein gogor kolpatu dituen adinekoen egoitzak, eta, ondorioz, eredia aldatzeko premia are gehiago azalarazi du”.

## Zaintza-lanak demokratizatze beharra

Zaintza lanak demokratizatze beharrezkoa izango da zaintzak eta etxeko lanek “izaera pribatua, merkanti-

la, femeninoa eta prekarioa izateari uztea, baita migrazio prozesuen menpeko izateari ere. Ikusgarri egin behar dira, eta aitortza politiko, soziala eta ekonomikoa eman behar zaie”, Solaberrietaren esanetan. Zaintza lanak sozializatu eta kolektibizatu behar direla nabarmendu du, familiaren eta emakumeen ardura eskusiboa izateari utzi, eta gizarte osatzen duten erakunde, eragile eta pertsona ororen arduraz izatera pasa.

## “Nola zainduak izan nahi dugu?”

“Usurbildarrok nola zaindu nahi dugu? Nola zainduak izan nahi dugu? Zein konpromiso hartuko ditugu horretarako norbanako, komunitate eta erakunde gisa?”. Udalak eta Matiak sustatu duten parte-hartze prozesuak galdera hauek izango ditu abiapuntu.

# Zaintza eredu jasangarri baten aldeko apostua

**M**atia Fundazioko Erkuden Aldazek gako garrantzitsu bat azpimarratu zuen hedabideen aurrean eginiko agerraldian: “Herritarrak zaintzen dituen herriaren eraketa da, gure ustez, zentzu guztietan zaintza eredu jasangarri baten eraketarako bidea”. Bultzatu eta garatu dituzten bi proiektu jarri zituen adibide gisa: Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako *Etxean Ondo* eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin egingako *Etxean Bizi*.

Bi proiektu horietan, pertsona da arreta ereduaren ardatz. “Horrek pertsona bere osotasunean ikustea dakar. Pertsonen ongizaterako eta zentzuzkoa zaien bizitza bizitzeko garrantzitsuak diren aldagaiak kontuan hartu behar dira, beraien autodeterminazioa sustatuz eta beraien duintasuna bermatuz”, Erkuden Aldazek azpimarratu zuenez.

## “Bakoitza bere esperientziatik eta ezagutzatik”

Zaintza ekosistema bat osatzeko garaian, kontuan izan behar diren gako batzuk nabarmendu zituzten prentsaurrekoan:



“Zaintzari dagokionean denok erantzule garena barneratu behar dugu”. Erkuden Aldazek esanetan, “zaintzaren erantzukizuna kolektiboa da”.

### ERKUDEN ALDAZ

**“Zaintza ekosistema baten eraketan, eragile guztien parte-hartzea beharrezkoa da”**

■ Erantzunkidetasuna. “Zaintzari dagokionean denok erantzule garena barneratu behar dugu”. Zaintzaren erantzukizuna kolektiboa da: erakunde publikoena, gizarte ekimenarena eta mugimendu komunitario eta elkarteena, besteak beste.

■ Parte-hartzea. Herritarrak dira herriarentzat nahi duten

zaintza ereduaren definizioan protagonistak, eta, beraz, hartuko diren erabakietan parte-hartze erreala behar lukete izan. Zaintza ekosistema baten eraketan, ekosistemako eragile guztien parte-hartzea beharrezkoa da, iraupen luzeko zainketetan pertsona bakoitzak behar duen laguntza bermatzeko; prebentzio ekintzetatik abiatuta bizitzaren azken uneetan zaintza integral eta koordinaturaino.

■ Zeharkakotasuna. Zaintza beharrean dauden eta hauen zaintzaileetatik hasi eta gizarte-sektore eta ezagutza-alor ezberdinak beharrezkoak dira,

bakoitzak bere esperientzia eta ezagutzatik, zainduak diren pertsonen eta zaintza burutzen dutenentzat erantzun integral eta koordinatuak eman eta testuinguru seguru eta duin batzuk sortu ahal izateko. Osasun eta gizarte zerbitzuen arteko harremana sustatzea, zerbitzu berriak definitzea, daudenak malgutu eta eraldatzea, zerbitzu ezberdinen erabilera koordinatzea eta abar beharrezkoak izango dira, eta baita ekosistema osoari zuzenduriko sentsibilizazioa eta honen guztiaren artikulazioan egongo diren profesionalen ahalduntzea.

## “Talde eragile bat izango da proiektuaren motorra”

Ainara Tomasena ere Matia Fundazioko kide da eta berak xehatu zuen parte-hartze prozesuaren metodologia. Bi fase bereiziko dira. Lehenengoan, zaintza eredu berria diseinatuko da, “denen artean”. Bigarrenean, eredu hori herriaren txertatzeko ibilbide-orrria zehaztuko da.

Lehenengo prozesua gauzatzeko, talde eragile bat eratu dute. Bertan parte hartuko dute laguntza beharrean dauden pertsonak eta euren

zaintzaileek zein zainketen arloan funtsezkotzat jotzen diren eragile komunitarioek, sentsibilitate desberdineko pertsonak uztartzeko asmotan. Talde hori izango da proiektuaren motorra, nola garatuko den zehaztuko duena: talde horren lehenengo bilera maiatzean egitea aurreikusi dute. Talde eragileaz gain, beste foro parte-hartzaile batzuk ere jarriko dituzte martxan, gainerako eragile eta herritarrek euren ekarpenak egin ditzaten.

Egungo zaintza sistema nolakoa den aztertzeak hasi eta Usurbilen nolako zaintza eredu nahi duten irudikatuko dute hurrengo hilabeteetan. Asmoa da urte amaierarako eredu berri hori definituta izatea, eta, 2022an, pixkanaka, aldaketak egiten hasia.

### Elhuyar Solasaldietan zaintza izango dute hizpide

Datorren asteko Elhuyar Solasaldietan zaintza ereduaz jardungo dute. Matiako kide

Mayte Sanchok eta Emagin elkarteko Miren Arangurenek hitz egingo dute bertan; Sanchok iraupen luzeko zaintzaren inguruan, eta Arangurenek Beterri Buruntzako zaintza erregimenaren inguruan. Apirilaren 21ean izango da, 18:30ean, Sutegin. Bertatik bertara jarraitzeko izena eman behar da usurbil-kultura.eus atarian, eta streaming bidez jarraitzeko aukera ere izango da plataforman bertan.

# EHBildu eta EAJ-PNV: “Beharrezkoa da beste espetxe politika bat”

2020ko abenduaren 12an, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos alderdiek eta ELA, LAB, UGT, CCOO, STEE, ESK, Hiru, Etxalde, EHNE, CGT eta CNT sindikatuek adierazpen bat aurkeztu zuten Bilboko Euskalduna jauregian. Berau Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztiei helarazteko konpromisoa hartu zuten. “Konpromiso hartatik, adierazpen hau sinatu nahi dugu gaur gure udalerriko herritarren aurrean”, diote Usurbilgo EAJk eta EHBilduk.

## Usurbilgo Udaleko EH Bildu eta EAJ-PNVko ordezkarien adierazpena

Gaur gure udalerriko herritarren aurrean aurkezten garen alderdi politikook pertsona euskaldun presoek Espainiako Gobernuak aplikatzen dizkien politikei buruzko gure azterketa eta balioespena ezagutarazi nahi dizkiegu Espainiako Gobernuari eta euskal zein nafar iritziz publikoari.

Sinatzen dugun alderdiok, euskal erakunde gehienetan eta sindikatu gehienekin askotan adostu ditugun adierazpenetan honako hau eskatu izan dugu: “Espetxeetako Lege Orokorrak aurreikusten duena bete dadila, askatasunaz gabetzen duten zigorrak bete daitezten norbere inguruetatik deserrotu gabe, birgizarteratzearen printzipioek adierazten duten moduan. Zentzu honetan, 2011 urtean ETAK jarduera armatua utzi zuenean irekitako denboraldi berriaren barruan honako hau adierazten dute: beharrezkoa dela beste espetxe politika bat, presoek beren gizarte eta familiako erroak dituzten lekuetatik urrun zigorrak bete beharra ekidindo duena. Politika berri horrek presoak bere familiarekin ha-



EAeko hainbat ordezkari sozial eta politiko Bilboko Euskaldunak batu ziren 2020ko abenduan eta konpromiso batzuk hartu zituzten. Usurbilgo EH Bilduk eta EAJ-PNVk konpromiso haiekiko atxikimendua adierazi berri dute.

### AGIRI ADOSTUA

**“Premiazkotzat jotzen dugu egungo urruntze politikari amaiera ematea eta Covid-19aren egungo testuinguruan gure sostengua adierazten diegu honako egitasmo hau artikulatzera zuzendutako proposamen guztiei”**

rremanak izatea erraztuko du eta adin txikiko seme-alaben ongizateari begiratuko dio, gurasoek haiekin egoteko duten eskubidea defendatuz”.

Covid-19ak eta konfinamenduak, pandemia honek espetxeratuentzat dituen ondorioei buruzko eztabaida ireki dute. Hilabete hauetan ugariak izan dira erakunde politiko eta sozialen ekimenak, nazioarteko erakundeen gomendioak jarraituz, Europatik, Madriletik, Gasteizetik eta Iruñetik eskaera hau egin dutenak: dagokien agintariek har ditzatela neurri espezifikoko pertsona presoek begira, haien osasun eta segurtasun baldintzak hobetez eta hobera egin dezaten osasun krisialdiaren ondorioek bereziki ukitu dituzten legedi juridikoko eskubideek ere.

Zentzu honetan, bereziki ga-

rantzitsua jotzen dugu 2020ko apirilaren 27ko Eusko Jaur-laritzaren proposamena, honako hau baieztatzen duena: “Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 12.1 artikulua araberako, Covid-19 izurritearen ondorioen testuinguruan eta osasun publikoaren prebenitu eta babesteko helburuarekin, egitasmo orokor bat artikulatu behar da espetxeratu guztiak preso bakoitzaren familia inguruetatik hurbilen dauden espetxeetara hurbilduak izan daitezten”.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustu garbia egin du. Hainbat modutako eta etengabeko eskaerak egin ditu, iraganeko logiken araberrako espetxe politika behin betirako gainditu dadin.

Ondorioz, honako hau adierazi nahi dugu:

1. 2011tik irekita dagoen errealitateari jarraiki, Espainiako Gobernuari helarazten diogu Euskadiko Autonomia Erkidegoko gizartearen eta adierazpen honen sinatzaileen sostengu osoa, pertsona euskaldun presoek legedi arrunt soila eta espetxe politika normalizatu bat aplikatzeko beharrezkoak diren urratsak ematea erabakitzen badu, aldatzear dugu iraganeko logiken ara-

berako legedian oinarritutako egoera behin betiko gaindituz.

2. Espetxeetako Lege Orokorrean aurreikusitakoa betetzea eskatzen dugu berriro ere, askatasunaz gabetzen duten zigorrak betetzean deserrotzerik gerta ez dadin. Askatasunaz gabetzen duten zigorrak familia eta gizarte sustraia dituzten lekuetatik urrun betetzea ekidindo duen espetxe politika bat ezinbestekoa jotzen dugu.

3. Premiazkotzat jotzen dugu egungo urruntze politikari amaiera ematea eta Covid-19aren egungo testuinguruan gure sostengua adierazten diegu honako egitasmo hau artikulatzera zuzendutako proposamen guztiei: espetxeratu guztiak orokorrean eta pertsona preso bakoitza, partikularrean, hurbil ditzatela beren familia inguruetatik hurbilen dauden espetxeetara. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Martutene, Basauri eta Zaballako espetxeetan birkokatzea dakar neurri horrek.

4. Helburu hau betetzeak modu erabakigarrian esku hartuko luke euskal gizartearen eta politikan iraganarekin lotutako etapa bat ixten eta aukera emango luke, biktima guztiak oroituz, bizikidetzaren demokratikoa araztutako orainaldiko eta etorkizuneko denboraldi berri bat eraikitzen.

Akordio hau Etxerat elkar-teari helaraztea, konpromiso hau gizarteratzeko eta ezagutarazteko.

Amaitzeko, egoera hau jasaten ari diren pertsona presoek senitarteko eta adiskideei ezagutarazi nahiko genieke hartua dugun konpromisoa, aipatu helburua lortzen laguntzeko beharrezkoak diren urratsak emateko.

EH Bildu Usurbil eta Usurbilgo EAJ-PNV.



*Freskagarri Naturala!*

Sagardo berriak dasta ditzakezue seguritasunez gure sagardotegian!

Betiko Sagardoa



**SAIZAR**

Sagardotegia [www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

*%100 bertako sagarra*

**OSTIRAL, LARUNBAT  
ETA IGANDETAN IREKITA  
(ERRESERBAREKIN)  
osasun neurri guztiekin**

*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



Santuenea,  
Telf: 943 36 50 31

**SAGARDOTEGIA**

**URDAIRA**

Sagardotegia

**OSTEGUN, OSTIRAL,  
LARUNBAT ETA  
IGANDETAN irekita**

osasun neurri guztiekin  
ERRESERBA EZAZU!



**Aginaga 943 37 26 91**

**SAGARDOTEGIA**  
aginaga

Sagardotegia

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA


ASTELEHENETAN ITXITA

osasun neurri guztiekin

**943 36 67 10**




info@aginagasagardotegia.com [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



KROKOILOA



TXORILA



AZERINARIOA



ARDIGREA



TXERRIKORRA



OSTRUKATUA

# E Spezie Festa


Ez dakigu zientzialari pitzatua den ala gezurti ikaragarria, baina zoro honek espezie berriak sortu omen ditu. Nola? Abereak abereekin nahasiz eta inork ulertu ez dituen formula matematiko genetiko labirintikoen bidez, aizue. Batere kolorerikgabeak atera zaizkio, ordea. Margotu itzazu zuk.



## Itzalak

Lotu itzal bakoitzari bere izena.

# Sudokua



Zein ederra den udaberria!

- 1 zenbakiz seinalatu dugun hori landarearen kimua da eta albokoa,
- 2 zenbakiz seinalatu duguna, gauza bera, baina txikiagoa. Bete itzazu lauki zuriak KIMUTXOA hitza osatzen duten hizkiez (K, I, M, U, T, X, O eta A). Letra bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.




ZENBAT TXORI IKUSTEN DITUZU IRUDIAN?

## Engainariak



## Hamarrekoa

Aurkitu zientzialariaren eta bere ispiluko irudiaren artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Lau zatietatik bi irudi handitik hartuta daude eta beste biak engainariak dira, hau da, oso antze-koak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

Ordena itzazu botak handienetik (1) txiki-enera (6) eta ondoren

## Handitik txikira

- margotu. 1: urdin ilunez eta horiz.
- 2: laranja eta urdin argiz.
- 3: Berdez eta arrosaz.
- 4: morez eta grisez.
- 5: marroiez.
- 6: gorriz.



# Udarregi ikastolatik albiste onak datoz



XXX. Enpresa Ideia Omenaren Lehiaketan finalera iritsi dira Udarregiko lau ikasle. Deustuko Unibertsitateko ESME Junior Enpresak antolatuturiko lehiaketaren finalera heldu dira Ekhi Aranburu, Danel Etxabe, Libe Olasagasti eta Imanol Uribe. Zorionak!



Irakasleak, ikasleak eta gurasoak auzolanean aritu dira Haur Eskolako kanpoaldea txukuntzen. "Larunbatean (apirilak 24) 10:00etan, berriz bilduko gara horma margotzera. Zatoz gurekin! Animatu!". Udalaren laguntzarekin ari dira txukunketa lanak egiten.

## Mendi ibilaldia



"Usurbilgo ikastolatik abiatuta, LH4ko ikasleekin batera Bordatxo aldera jo genuen". Usurbil-Bordatxo-Mapil-Aginaga-Usurbil ibilbidea osatu zuten.

## Zumetaren omenez



Apirilaren 23an, urtebete Zumeta zendu zela. Bere omenez hainbat mural margotu zituzten DBH1eko ikasleek.

## "Denon artean zaindu dezagun espazio berri hau"



Kanpoko espazioa berrantolatzeari ekin diote Udarregi ikastolan. "Patio ondoko zelaian, aire librean klaseak egin eman izateko eremu hau jarri dugu. Pixkanaka osatzen joango gara eremu hau", hala zioten apirilaren 16an sare sozialetan. Ohar bat ere luzatu zuten: "Hau ez da klaseak emateko bakarrik, ikastolako ordutegiaren aparte gozatzeko leku bat da. Denon artean zaindu dezagun, mesedez".

# INSTAGI eta Lanbide Eskola, elkarlanean

**H**urrengo urteetan 800 instalatzaile eta 900 elektrikari beharko direla aurreikusi du INSTAGIk, Gipuzkoako Instalatzaile eta Mantentzaileen Erakundeak. Ildo horretan, Usurbilgo Lanbide Eskolak eta INSTAGIk hurrengo urteetarako elkarlanerako bideak adostu dituzte.

Jesus Mari Gomez INSTAGIko zuzendariak esan du: “Gure datuen arabera, elektrizitatearen eta telekomunikazioen sektorean lan egiten duten pertsonen %37,40k erretiroa hartuko du datozen hamar urteetan. Iturgintzako, gaseko eta termikoko instalatzaileen kasuan, ehuneko hori gaur egun sektorean lan egiten duten pertsonen %33,19koa da”. Ondorioz, Don Bosco, Tolosaldea eta Usurbilgo Lanbide Eskolarekin hainbat ekintza egingo dituzte hurrengo urteetan.



Sektoreko profesionalak ikastetxeetan hitzaldiak ematen ari dira, beraien lanbideko gorabeherak eta sekretuak ikasleei helarazi asmoz. Usurbilgo Lanbide Eskolan ere izan dira egunotan.

## ETORKIZUNEN OGIBIDEAK

**“Hurrengo urteetan 800 instalatzaile eta 900 elektrikari beharko direla aurreikusten da”**

Erreleboa behar duten enpresak ikastetxearekin jarriko dira

harremanetan, ikasleak enpresa hauetan egin ditzaten beraien lan praktikak edota Dual-eko egonaldiak, etorkizunean bertan lanean gelditzeko aukerarekin. Ikasgelako metodologiak ere berrikusteko konpromisoa hartu dute, ikasleek aurreikusten dituzten erronkek ahalik eta zerikusirik handiena izan deza-

ten enpresetan aurkituko duten errealitatearekin.

Isidro Zaldua Lanbide Eskolako zuzendaria oso pozik agertu da INSTAGIrekin elkarlanean jarduteko aukera horrekin. “Gure ikasleei irtenbide profesional paregabea eskainiko dio elkarlan honek”, Zalduak azaldu duenez.



# Ate Irekiak

## Maiatzak 12



Erdi Maila: 16:00 - 17:30  
Goi Maila: 17:30 - 19:00

## Maiatzak 15



Erdi Maila: 10:00 - 11:30  
Goi Maila: 11:30 - 13:00



943 364600



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

HARTU  
HITZORDUA!!!



# “Berotu eztarria eta ireki irudimena, askatu bihotza eta jarri burmuina martxan”

**L**iburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da hirlaren 23an. Egun handia izaten da liburuak maite dituztenentzat, bai eta liburutegietan pasioz lan egiten dutenentzat. Horregatik, aurtengoan ere, Sutegi Udal Liburutegiak saio berezia prestatu du ospakizun modura. Apirilaren 27an astearte, 18:00etan udal liburutegian, “Ipuinak Dantzatzan” ipuin-kontakteta saio musikatua. Ana Apika izango da ipuin-kontalaria eta Intxixu Valbuena, berriz, musikaria. Apikarekin izan da NOAUA!, saioari buruzko azalpenak emateko.

## NOAUA! Ipuin kontakteta musikatua kontzeptu berria egiten zaio jende askori. Nola uztartzen dira bi diziplinak saioan?

**Ana Apika:** Botikan bezala, ipuin kontakteta mota pila bat dago; batzuetan txotxongiloak erabiltzen dira, beste batzuetan irudiak, beste kasuetan oihalak, maletak, mahaiak, mozorroak... Nik ahozkitasunean oinarritzen dut lana; ahotsa, komunikazioa, presentzia eta publikoarekin sortzen den harremana ezinbestekoak dira nire kontaktetan. Kontalari lanetan 24 urte baino gehiagoko eskarmentua dut eta duela urte batzuk Intxixu Valbuena ezagutu, eta berarekin zerbait berezia egitea bururatu zitzaidan. Berak kitarra elektrikoa jotzen du, eta hala hasi ginen gure lehenengo ikuskizuna prestatzen:



Ana Apika ipuin-kontalaria eta Intxixu Valbuena musikaria udal liburutegian izango dira apirilaren 27an. Kontaktakizun musikatua 18:00etan hasiko da.

### ANA APIKA

**“Ume eta familia kontuak, harremanak, sentimenduak... Ipuin guztiak bezala, gozatzeko istorioak izango dira”. Apirilaren 27an astearte, 18:00etan udal liburutegian**

“Ipuinak Dantzatzan”. Garrantzia eman nahi nion musikariari ere eta musikari, horrexegatik ipuinak kontaktetz gain, kanta

ugari ere abesten ditugu, kantetan ere istorioak daude eta. Ipuin bakoitzak bere tratamendua du, lehenengo ipuinean musika-ukituak sartu ditugu, bigarrenean berriz musika sentimenduekin bat dator, istorioa laguntzen du, eta hirugarrenean pista musikalak erabiltzen ditugu publikoarekin istorioa aurrera eramateko.

### Jendeak orokorrean nahiago ditu kontakteta musikatuak edo betiko ipuin kontakteta tradizionala?

Gure kontakteta musikatuak beste xarma bat dute, poeti-

koagoak dira edo. Kantak ere sartzen ditugunez, publikoak parte har dezake eta normalean gurasoak ere oso gustura egoten dira gurekin saioetan. Leku handietan, kalean, jaialdietan edota familiekin aritzeko kontaktetarako, orokorrean, musikatuak aproposagoak dira esango nuke.

### Adin guztientzat zuzendutako saioa izango da. Zein adin talderentzat izan daiteke egokiena?

Beti esaten dugu 4 urtetik gorakoentzat direla gure saioak, ordubetekoak dira eta batzuetan apur bat luzatzen gara. Ume txikiak ere gustatzen zaizkigu, gurasoekin baldin badaude, ez dago arazorik, baina adi egon behar dugu eta nazkatzen direnean onena da etxera edo kanpora eramatea. Orokorrean esanda, 4 urtetik 120 urtekoenganaino irits gaitzke ongien.

### Zein da landuko duzuen gaia?

Kasu honetan ez dago gai konkreturik. Ipuin onak dira, hori bai: ume eta familia kontuak, harremanak, sentimenduak... Ipuin guztiak bezala, gozatzeko istorioak dira.

### Zer aurrera dezakezu spoilerrik egin gabe?

Etorri gurekin ondo pasatzera, barre egingo dugu-eta. Berotu eztarria eta ireki irudimena, askatu bihotza eta jarri burmuina martxan.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
Patriketa  
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

# Gure Esku Usurbil: “Erabakitzekeo tresnak behar ditugu herritarron eskura”

Erreferendumen aldeko sinadura bilketarekin lanean jarraitzen du Usurbilgo Gure Esku taldeak, “eta gero eta herritar gehiagoren konpromisoa biltzen ari gara”.

## 11 Sinadura baietz!

“Erreferendumen aldeko sinadura bilketak aurrera darrai eta gero eta herritar gehiago ari da firma bilketarekin konpromisoa hartzen.

Hamaika gara, erreferendumen aldeko plataformak manifestua plazaratu du eta sinaduren bitartez eskaera helarazi nahi die EAEko Legebiltzarrari eta Nafarroako Parlamentuari, baita konpromiso adierazpena ere Ipar Euskal Herriari eta diasporari.

Hemen EAEko Eusko Legebiltzarrari luzatu nahi zaion



“Gero eta herritar gehiagoren konpromisoa biltzen ari gara”. Argazkian, euren sinadura eman duten hainbat herritar.

## GURE ESKU DAGO USURBIL

**“Herritarron garaia da.  
Indarrak batu  
eta aurrera egitekoa”**

eskaera:

Herritarron garaia da. Indarrak batu eta aurrera egitekoa. Edozein gai edo auziri buruzko erabakiak hartzeko aukera izan behar dugu, baita gure lurral-

dearen etorkizun politikoa eta beste lurraldeekiko harremanak menpekotasunik gabe eta askatasunez hautatzeko ere. Sinestuta gaude, gainera, erabakiak herritarrok hartuz gero, denontzat etorkizun hobe bat eta bizitza duinagoak bermatu ditzakegula. Bide horretan gure borondatea eta konpromisoa adierazten dugu.

Erabakitzekeo tresnak behar ditugu herritarron eskura. Honenbestez, Eusko Legebiltzarrari proposatu eta eskatzen diogu gure etorkizun politikoaren inguruko eztabaida sustatzea, herritarron parte hartze eraginkorra bermatuz, eta erreferendumak egiteko ahalmen osoa bere gain hartu, arautu eta garatzea.

Gure Esku Dago Usurbil”.

# TTAKUN KULTUR ELKARTEAK KUDEATZAILEA BEHAR DU

*Elkartearen kudeaketaz, plangintzaz, giza baliabideen kudeaketa, antolakuntzaz eta jardun-ekonomikoaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz...*

## • Ezinbestekoa:

- Goi mailako ikasketak izatea.
- Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea.
- Talde gidaritzan eta euskalgintzan eskarmentua.

## • Baloratuko da:

- Antolakuntzarako, komunikaziorako, lantaldeen koordinaziorako eta giza harremanetarako gaitasuna.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Egitasmo berriak proposatu eta sortzeko gaitasuna.
- Euskara C1 edo C2 izatea.
- Ekonomia ezagutzak: diru-laguntzetan eskarmentua, zuriketak, aurrekontuak...
- Ofimatika ezagutzak.
- Lasarte-Oria ezagutzea



# “Kutsaduren kontrol independenterako metodologia finkatuta geratu da”

**E**rraustegiaren inguruko azterketa independentea martxan jarri zuten duela ia bi urte, eta lehen laginketa-  
ren emaitzak aurkezten hasi dira jada. Zubietan egon ziren duela aste batzuk eta larunbat honetan egingo dute bigarren aurkezpena, eguerdiko 12:00etan Sutegin. Felix Olaetxea eta Maider Usabiaga arduratuko dira lan horretaz, baina lanketa honen atzean jende gehiago dago; herritar ugari eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko hainbat kide. NOAUA!k bien usteak eta jakituria bildu ditu.



“Erabat zaharkituta daude legeak”, azaldu digute Maider Usabiagak eta erraustegiaren inguruko azterketaren sustatzaileek. “Horren aurrean, proiektu hau biztanleriaren ahalduntze proiektu gisa ulertzen dugu”.

**NOAUA! Sutegin lehen emaitzen berri ematekotan zaude-te. Nolako izan da prozesua?**

**Maider Usabiaga:** 2019aren amaiera martxan jarritako proiektua da. Garai hartan, erraustegia oraindik martxan jarri gabe zegoen, eta piztuz gero, jarraipen independente bat egiteko beharra ikusten genuen; biok industria ingeniariak gara, eta gure ezagutzak direla eta, zerbait egiteko beharra ikusten genuen. Aukera sortu zitzaigun harremanetan jartzeko ToxicWatch fundazioarekin. Hernani Zero Zabor taldeak antolatuta fundazioko kideek hitzaldia eskaini zuten, eta azaldu zuten ikuspuntu zientifikoa erabat egokia iruditu zitzaigun gainera zetorkigun egoeraren aurrean tresnaren bat izateko. Herri mugimendu

**AZTERKETA  
INDEPENDENTEA**  
**“Zubieta Lantzen  
eta Erraustegiaren  
Aurkako Mugimenduaren  
boluntarioei esker atera  
ahal izan dugu aurrera  
proiektua; bai eta diruz  
lagundu dutenei  
esker ere”**

asko zeuden eta zientziaren laguntza hori ere gure borrokan beste tresna interesgarri bat izan zitekeela uste genuen. Herbeheretako erraustegi batekin lan polita egiten ari ziren, eta monitorizazio lan independente hori oso interesgarria

eta egokia iruditu zitzaigun guretzat ere. Kutsagai Organiko Iraunkorregan atentzio handia jarrita dauka zientziak gaur egun, eta horiek ezagutu eta lantzea garrantzitsua zen guretzat. Beraz, haiekin harremanetan jarri ginen, eta horrelako zerbait egin litekeela esan ziguten haiek. Amu bikaina ere bota ziguten, Mendebaldeko Europako lehenetarikoak izango ginela esanez, 0 lagin bat lortzen; erraustegia martxan jarri aurretik egoera aztertzeo aukera genuelako.

**Aipatu duzuen 0 lagin horrek berebiziko garrantzia izango du bilakaera neurtzeko, ezta?**

**FO:** Erabatekoa. Mendebaldeko

Europar horrelako biomonitorizazio bat zero neurketatik egiten lehenengoak gara. Oso garrantzitsua da, eta gainera berezia. Horren oinarritzko zerbait oraindik egiteke zegoen. Administrazioak legeak esandakoa egitera mugatzen dira, interes ekonomikoak dira lehentasuna dutenak eta lobbyek eragin handia dute. Daukagun sistema ekonomikoa da, ez ingurumena zaintzekoa... Gainera, kutsagaien kontrola egiterakoan, zientzia askoz aurreratuago dago lege-eskakizuna baino. Erabat zaharkituta daude legeak. Horren aurrean, proiektu hau biztanleriaren ahalduntze proiektu gisa ulertzen dugu.

## “Urtero-urtero egingo dugu laginketa”

**NOAUA! Zer azpimarra daiteke lehen emaitza horietatik?**

**M.U:** Orain erakusten ari garena erraustegia martxan jarri aurreko laginen emaitzak dira.

**FO:** Garrantzitsuena da lehen lagin hori badugula, oinarriak jarri ditugu eta guneak ere eza-

rri ditugu. Zer neurtu, non eta gainontzeko informazioaren oinarriak dauzkagu. Metodologia zehaztuta daukagu, eta beraz, abiapuntua badaukagu.

**Noizko espero dira hurrengo laginen emaitzak izatea?**

**FO:** Urtero-urtero egingo dugu laginketa. 2020ko emaitzak oraindik ez zaizkigu iritsi, baina laster jasotzea espero dugu. Gainera, PFAS neurketak ere gehitu ditugu urte horretan, kezka handia baitago komunitate zientifikok gaur egun

kutsagai hauekin ere, eta hortan ere aitzindariak izango gara.

**M.U:** 2019ko laginketa oso zabal izan zen, 2020koa espezifikoagoa izan da, eta Covid-19ak lagundu ez bazuen ere, aurrera atera ahal izan genuen.



# “Gardentasun falta azpimarragarria da”

**NOAUA! Nolatan ez dira neurketa horiek egiten, ez bada modu independentean, biztanleen osasuna jokoan egonda?**

**Maider Usabiaga:** Hausnarketa horretatik abiatu zen proiektu hau, hain zuzen ere. Adibidez, gaur egun badaude sistemak tximiniaren irteeran dauden dioxinen laginak une oro hartzeko, gero laborategian benetan dena kontabilizatu dadin. Horren orde, legeak esaten duena da urtean lau lagin hartu behar direla 6 ordutako iraupenekoak. Lagin horiek hartzeko, gainera, erraustegiak jartzen du hitzordua eta laginak hartuko dituen enpresa ere berak aukeratzen du. Legeak erabakitzen du zer den neurtuko den hori ere. Zentzu horretan, legea erabat zaharkituta dago. Zientzialariak etengabe ari dira lanean, eta uneoro kutsatzaile berriak aurkitzen dituzte. Kutsagai organiko iraunkor familia ugari ari dira aurkitzen azken aldian, eta horietako asko oso kantitate txikitan oso kutsagarriak direla ikusten ari dira. Oraindik, karakterizazio fasean daude hauetako asko, baina horien eragina oso arriskutsua dela badakite. Orduan, legea ez da haien bila ari, baina gure tximinietatik aspaldi-



ToxicoWatch fundazioarekin batera bideratzen ari dira erraustegiaren kutsaduraren inguruko azterketa.

## DATUEN PUBLIKOTASUNA

**“Webgune bat martxan jarri nahian ari gara datuak publiko egiteko eta berrikuntzen berri eman ahal izateko. Prest dugunean jakinaraziko dugu”**

tik ateratzen ari dira. 2019an, Gipuzkoako Foru Aldundiak lan epidemiologiko bat eskatu zion BioDonostiari eta hainbat pertsonari odol laginak egin zizkieten dioxinak neurtzeko. Erraustegiaren inguruan bizi diren pertsonen, jakina. Asmoa

da, hemendik urte batzuetara berriz ere laginketa bera egitea aldaketarik egon den ikusteko. Guretzat hori oso gogorra da, benetan aldaketarik balego, mina jada eginda bailegoke. Horretarako arrautzen, lur, ur, sedimentu, landare eta ama-esnearekin lanean ari gara.

**FO:** Horretaz gain, gardentasun falta ere azpimarragarria da. Adibidez, Arkaitzerrekan duela urtebete izandako isuriaren kasuan, kudeaketa negargarria izan zen: Aldundiak lehenbizi ukatu egin zuen gertatutakoa, baina gerora jakin dugu isuri horren aurretik ere beste batzuk izan zirela. Gardentasun

ezari jarraituz, kritikoa izaten da tximiniatik ateratzen diren fluxuek aurrez 850°C-ko tenperaturan egotea bi segundoz, dioxinak desagertzeko ezinbestekotzat jotzen baita.

PFAS kutsagaiekin aldez, zientzialari batzuk jada esaten ari dira 1100°C bermatzea beharrezkoa dela. Guzti hori bermatzen duen ebidentziarik ez dute publiko egin. Herberehetan adibidez, gardentasunaren alde, herri mugimenduak eta ekologistak gonbidatuak daude erraustegiaren jarraipen batzordea. Hemen egoera horretatik urrun gaude.

## Herriko beste toki batzuetan ere, “kutsadura maila garrantzitsua da”

**NOAUA! Herrian puntu bero gehiago ere badaude erraustegiaz gain, ezta?**

**M.U:** 2019an Donostian, Hernanin, Urnietan, Andoainen, Usurbilen eta Zubietan hartu ziren laginak. Ikerketak azaleratu duen gauzetako bat da erraustegia martxan jarri aurretik ere, hainbat gunetan kutsadura maila garrantzitsua dela. Arrautzetan atzeman dugu ebidentzia hori, batez ere.

**FO:** Oilategi bakoitzeko ja-

beekin hitz egin dugu bakoitzak jakin dezan zein den bere egoera. Emaizta guztiak udaletxe bakoitzera eraman ditugu guzti horren berri izan dezaten baita ere, osasun arazo izan daitezkeelako. Horren atzean dagoen historikoa eta kutsaduren jatorria aztertzea gure helburutik haratago doa, baina egin beharreko zerbait litzateke.

**Zeintzuk izan daitezke jatorri horiek?**

**FO:** Atxegaldetik gertu kutsadura maila garrantzitsua neurtu da lehen lagin horren arabera. Hor inguruan Ucin dago, dioxinen iturri izan daitekeena.

Bestalde, hilerrri berriaren ondoan, herriko hondakinak erretzeko instalazio bat egon zen. Inolako filtrorik gabe erretzen ziren hondakinak garai hartan, eta hor sortzen ziren zepak aldapan behera botatzen zituzten, eta oraindik ere han jarraitzen dute. Horrez gain, Luzuriagako zepak betelanak

egiteko maiz erabili izan dira herriko toki ezberdinetan, inguru hauetan ere bai. Aztertu egin beharko litzateke.

Hala ere, erraustegiaren inguruan definitu ahal izan dugu kutsadurarik gabeko gune espezifiko bat; hau oso garrantzitsua izan da. Gune horretan finkatu dugu monitorizazio kontrola, eta horko laginekin fidagarriki egin ahal izango dugu erraustegiaren kutsaduren kontrola datozen urteetan.

# “Hau ez da pandemia bat, hau sindemia bat da”

**A**na Galarraga Aiestaran zientzia-komunikatzailea da eta Elhuyar Fundazioarentzat egiten du lan. Covid-19aren korapiloak deslotzen izeneko hitzaldia eskaini zuen aurreko asteazkenean Sutegin. Pandemiari buruzko jakingarri ugari aletu zituen.

“Krisi bat baino gehiago elkartzen direnean, haien ondorioak ez dira bat eta baten gisan gehitzen. Are okerragoa da gertatzen dena”. Ana Galarragaren esanetan, “biderkatu egiten dira”. Lancet aldizkariak jaso du sindemia definizioa, Covid-19ak ekarri duen status quo honetan krisi bat baino gehiago elkartu delako: osasun krisi bat, gizarte krisi bat (ezberdintasun sozialak agerian geratu dira eta globalizazioaren ajeak nabarmendu) eta ingurumen krisi bat. “Elkarlotuta daude krisi denak eta ondorioak are eta handiagoak dira”. Horregatik, sindemia kontzeptuaren talaiatik begirata, egungo egoera hobeto ulertzen dela dio Elhuyarreko kideak.

## Zaintza-lanak emakumezkoek egiten dituzte nagusiki

Pandemiak, bistan da, ez du soilik osasun krisi bat eragin. Pandemia bezala, osasuna ere



Pandemiari argazki zehatz bat atera nahi bazaio, baldintzatzaile sozialak ere kontuan hartu behar direlako Ana Galarragak. Apirilaren 14an Sutegin izan zen. Elhuyar Solasaldiak zikloa berarekin abiatu zen.

## ANA GALARRAGA

**‘Covid iraunkorra’ delako gaitzak emakumeengan izan du eraginik handiena. “Baina hori ez da oraindik aztertu, gizonezkoetan jarri zelako fokua hasiera-hasieratik”**

poliedrikoa dela gogorazti zuen Galarragak. “Fisikoa izateaz gain, psikikoa eta soziala ere bada”. Eta ezaugarri sozialek eragin zuzena dute koronabirusaren ondorioei aurre egiteko garaian. “Enpleguaren arloan adibidez, lanbide batzuk ezinbestekotzat jo ziren itxialdian, eta telelana gutxi batzuentzako pribilegio bat izan zen”. Ezinbesteko ofi-

zioen artean zen zaintza-lana, “baina horietako asko ez dira ordainduak”. Eredu domestikoan nagusiki. Eta eremu pribatu horretan, zaintza-lanaka beti emakumezkoek egiten dituztela ohartarazi zuen.

## “Genero-diskriminazioa egiturazkoa izaten ari da”

Pandemiari argazki zehatz bat atera nahi bazaio, baldintzatzaile sozialak kontuan hartu behar direlako dio. Ildo horretan, genero-diskriminazioa egiturazkoa izaten ari dela dio Galarragak. “Pandemia hasi zenean, fokua gizonen gain jarri zen, hasiera batean ikusi zelako gizonen gain ematen zela kutsatze eta heriotza gehien. Gizonen patolo-

giak ikertu ziren eta ikerketa horietatik aparte utzi zituzten emakumezkoenak. Gero ikusi da Covid iraunkorra delako gaitzak (infekzioa gainditu ondoren sintomek iraun egiten dute) emakumezkoengan izan duela eraginik handiena. Eta hori ez da oraindik aztertu, gizonen gain jarri zelako fokua hasiera-hasieratik”.

Denborarekin ikusi da emakumezkoek kutsatzeko arrisku handiagoa dutela. Lan esentzialak (osasungintza edota zerbitzuetan) eta zaintza emakumezkoen gain geratzen direlako nagusiki. “Horrek errazten zuen birusa hartzea, nahiz eta gero patologia ez garatu gizonen bezain gordin”.

# “Txertoak arrakasta zientifiko ukaezinak izan dira”

Ana Galarragak pandemiaren ertz ezberdinak aztertu zituen. Txertoei eta txertaketei tarte bat eskaini zien. “Txertoak izan dira arrakasta zientifiko ukaezinak. Mugarri bat izan da”, azaldu zuen Sutegin bertaratu zirenen aurrean. “Nik neuk ez nuen uste urtebeteko epean hainbeste txerto lortuko zenik”.

Oro ez da urte, ordea. “Desastrea banaketan eta txertaketan etorri da”. Mapa baten la-

guntzaz, begibistan utzi zuen zer nolako ezberdintasunak ematen ari diren. “Osasunaren Mundu Erakundearen esanetan, herrialde aberatsetan lautik bat dagoeneko txertatuta dago. Gainerako herrietan, 500dik bakararra”.

AstraZeneca eta Janssen txertoen balioa kolokan jarri da azken asteotan. Mesfidantzak mesfidantza, Ana Galarragak txerto hauen balioa azpimarratu nahi du. “Irizpide zien-

tifikoaren arabera, onurak handiagoak dira, albo-ondorioek ekar ditzaketan kalteak baino. Ez dago inolako zalantzarik horretan. Eta halaxe esan du Europako Medikamentu Agentziak. Txertaketarekin segitzea gomendatu du eta txertaketa bera azkartzea komeni dela dio. Gero eta jende gehiago txertatu, heriotza gehiago ekidingo direlako. Horren ordez, herrialde bakoitzak bere erabakiak hartu ditu, irizpideak

bateratu gabe. Europan bakarrik ematen da egoera hau”. AstraZeneca txertoa 115 herrialdetan ari dira erabiltzen. “Merkeena delako. Oxfordek erabaki zuen ez zuela diru-irabazirik nahi pandemia bukatu arte”. Pfizer etxeko txerto gehiago iritsiko dira laster. “Europak posible du baina beste herrialde batzuk ez dute aukera hori izango”. Eta hori erabat bidegabea dela dio Galarragak.

## “Gazteena gehien kriminalizatu den taldea izan da”

**P**andemiak agerian utzi duen beste elementu bat estigmatizazioa izan da. “Estigmak eta erruak oso ondorio txarrak ekartzen dituzte. HIESaren garaian ikusi zen; gaitza prostitutekin eta homosexualekin lotu zenean”. Arrisku hori bazegoen pandemia hau hasi zenean, eta komunitate txinatarrak jasan zuen estigmatizazioaren kaltea lehen unetik.

Ez da estigmatizatua izan den kolektibo bakarra izan. Denborekin mundu osora zabaldu zenez, beste segmentu batzuk jarri ziren begipuntuan. Horien artean, gazte jendea. “Gehien estigmatizatu den taldea izan da”, zioen Ana Galarragak. “Kriminalizazio garbia, erabat injustua”. 16 eta 18 urtetik behe-



**Komunitate txinatarrak izan zen estigma eta errua jasan behar izan zuen lehen kolektiboa. Beste kolektibo batzuk jarri ziren begipuntuan ondoren. Ana Galarragaren esanetan, gazteek “kriminalizazio garbia” pairatu dute.**

rakoentzat txertaketarik ez dago aurreikusia oraingoz. “Seguraski azkenak izango dira txertoen

onurak jasotzen. Bitartean, jarraitu beharko dute maskarak eta distantzia mantentzen. Eta

berez eta naturaz tokatzen zaie elkarrekin egotea, harreman-tzea, jende berria ezagutzea...”.

## Zaintza ereduaz ariko dira Elhuyar Solasaldietan

### **Apirilak 21asteazkena:** **Zaintza-eredua aztergai**

Maite Santxo Castiellok eta Miren Aranguren Etxartek zaintzaren gaiari helduko diote apirilaren 21eko hitzaldian. Batetik, Matia fundazioa Usurbilgo Udalarekin lantzen ari den zaintza-ereduaren inguruko hausnarketa aletuko du Santxok, eta Arangurenek, berriz, Betteri-Buruntzan zaintzaren inguruan egin den azterketa aurkeztuko du.

**Apirilak 28 asteazkena:**  
**Pentsamendu kritikoa hizpide**  
Agustin Arrieta Urtizberea

EHUko filosofia irakasleak pentsamendu kritikoa izango du hizpide apirilaren 28ko solasaldian. Egungo gizartearen eraldaketa-prozesu azkar eta etengabe jasotzen dugun gehiegizko informazioa aztertzeke pentsamendu kritikoa garatzeko beharraz ariko da. Pentsamendu kritikoa lagunduta, informazio partzialen eta interesatuen inguruan eta ebidentzietan oinarritutako informazioa eraikitzeke premiaz ariko da.

**Maiatzak 5 asteazkena:**  
**Ekonomiaren berreraikuntza, ekologiatik**

Covid-19aren ostean, ekonomiaren berreraikuntza ekologikoaren alde egin beharraz ariko dira Mirene Begiristain Zubillaga ekonomialaria eta Arturo Elosegi Irurtia biologoa. Euskal Herriko lauhun zientzialaririk baino gehiagok argitaratutako agiriaren sinatzaileak dira Begiristain zein Elosegi.

**Maiatzak 12 asteazkena:**  
**Adimen artifiziala hizkuntzan**  
Azken hitzaldian, Xabier Arregi Iparragirre EHUko irakasle eta IXA taldeko kideak eta Xabier Saralegi Urizar Elhuyarrek kideak *Adimen artifiziala*

*hizkuntzan* gaia izango dute hizpide. Arlo honi ikuspegi sozial bat nola eman aztertuko dute.

### **Solasaldi denak** **Sutegin egingo dira**

Solasaldi denak Sutegi egingo dira, 18:30ean hasita. Streaming bidez jarraitu ahal izango dira usurbilkultura.eus eta zientzia.eus atarietan. Hitzaldiak doakoki izango dira, baina Sutegira bertaratzeko aurrez izena eman beharko da, indarrean dauden edukiera-mugak di-rela eta.

**ALDAMU**  
  
**KONPONKETAK**  
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**Kima**  
MASAJE LEKUA  
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

# Udajolasen izen-ematea apirilaren 30ean amaituko da

**Izena emateko epea:**  
Apirilaren 19tik apirilaren 30era (biak barne).

**Internetez:**  
<https://noaua.eus/bereziak/udajolas-2021>

**Kuota:**  
85 euro. Familia ugaria: 69.

**Ordainketa:**  
Laboral Kutxako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da UDAJOLAS eta haurren izen-abizenak adieraztea. ES28 3035 0140 34 1400025811 (Usurbilgo Udaleko kontua).

**Plazak:**  
Gehieneko plaza-kopurua: 200.

**Aurkeztu beharrekoa:**  
Izena ematerakoan, dokumentuok bidali behar dira [elkar-tea@noaua.eus](mailto:elkar-tea@noaua.eus) helbidera:  
■ Ordainketa agiria.  
■ Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia.



Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko.

**UDAJOLAS**  
**Izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, diruaren %100 itzuliko da**

■ Familia ugarien kasuan, familia ugarien txartela edo familia liburuaren kopia.

**Oharrak:**  
■ Apirilaren 30a izango da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen ematerik ez da

onartuko.  
■ Informazio gehiago [elkar-tea@noaua.eus](mailto:elkar-tea@noaua.eus) helbidean edo 688807336 telefono zenbakira deituz.  
■ Guraso-bilera egiterik bada, ekainaren 15an asteartea egingo da Sutegin, arratsaldeko 17:00etan.  
■ Koronabirusa tarteko, Udajolas egiterik izango den edo ez bermerik ez daukagu. Hori dela eta, izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, diruaren %100 itzuliko da.

## Udal dirulaguntzak eskatzeko garaia

2021ko udal diru laguntzen oinarriak apirilaren 7an eman zituzten argitara Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Deialdi honen bitartez, Gizarte-Ongizatea, Ingurumena, Kiro-la, Kultura eta Nekazaritza-Abeltzaintza udal sailei lotutako egitasmoak sustatuko dira.

## Oinarriak, sarean kontsultagai

Elkarte, erakunde zein norbanakoek Usurbilen hainbat alorretan egin asmo dituzten ekimenak sustatzeko, dirulaguntzen deialdia arautzen dituen oinarriak apirilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edota Udalaren web orrian eskura ditzakezue: [www.usurbil.eus/eu/dirulaguntzak](http://www.usurbil.eus/eu/dirulaguntzak) helbidean.

## Eskaerak aurkezteko azken eguna: maiatzak 5

Dirulaguntzak eskatzeko epea maiatzaren 5ean asteazkena amaituko da.

## Errigorako banaketa apirilaren 26ko astean egingo da

Aurreko urteko kanpainarekin alderatuta, %25ean handitu da herritarren eskaera. Produktu batzuk agortu egin direnez, ekoizpena handitu beharrean aurkitu dira.

## NOAUAKO bulegotik pasa behar da

Arrazoi honengatik, Errigorako saskien banaketa astebetetz atzeratuko da. Usurbilen, apirilaren 27an, 28an eta 29an egingo da NOAUA!ko bulegoan.

## Plazan Bazan, 10/11 orrialdeetako soluzioak

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m<sup>2</sup> terraza, 8m<sup>2</sup> trastelekua, 24m<sup>2</sup> garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

**Alokairuan**

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m<sup>2</sup> Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakienez pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali [CVinfo@quantum.eus](mailto:CVinfo@quantum.eus) helbidera

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagiria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egin dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

**BESTELAKOAK**

Sagarrak txikitzeko egurrezko makina bolantearekin salgai.

678082127 (Aitor)

Sukaldeko Ekonomika oso egoera onean saltzen dut, gutxi erabilia. 678082127 (Aitor)

Potxoenea aurreko petrilean, mahaien ondoan, betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Udaltzainetan utzi ditut.

Bose markako 2 bafle (Studio-craft 300ST) salgai. 80 euro. 3 biakoak, 15-60W. 85dB sentsibilitatea. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio).

Technics SB-C57 bi bafle salgai. 80 euro. 3 biakoak, 80W. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio).

Salgai termomix mod TM 31 oso berria 618094968

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.



**Zorionak Ander!**  
Zorionak eta muxu potolo bat etxekoen partez!



**Zorionak!**  
Apirilaren 18an 10 urte bete zenituzten. Bi zenbakiiii dauzkazue orain! Muxu potolo bat osaba eta amatxoren partez.



**Ongi etorri Ainhoa!**  
Maitasunez, zure familiak.



**Zorionak Iزارo!**  
Apirilaren 23an 9 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxekoen partez!

**Heriotzak**

**Juan Manuel Fernandez Lorigo**

Apirilaren 16an hil zen, 59 urterekin

**Heriotzak**

**Jose Gutierrez Calvo**

Apirilaren 14an hil zen, 91 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 22** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 23** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 24** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 25** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 26** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 27** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 28** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.

**Osteguna 29** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 30** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 01** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 02** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER  
Andre Kalea, 48 "Cuevas"  
943 55 17 93

# Agenda apirila

## 23 ostirala

■ **Dantza Eguna. "Euskal Dantzak eta generoa" hitzaldia.** 19:00etan Sutegin, Oier Araolazaren eskutik.

## 24 larunbata

■ **"Erraustegiaren kutsaduraren kontrol independentearen lehen emaitzak" hitzaldia.** 12:00etan Sutegin. Hizlaria: Felix Olaetxea.

■ **Dantza Eguna. Tranpaldo irekia** dantza saioa Artzabalgo frontoian, 16:30ean. **"Zorotan Bele" herri ikuskizuna**, 19:30ean Oiardon.

## 25 igandea

■ **Dantza Eguna. "Mutu" dantza ikuskizuna.** 18:00etan Sutegin. Sarrera: 5 euro, usurbilkultura.eus web orrialdean salgai.

## Dantza Eguna emanaldi bikoitzarekin ospatuko dute

Larunbat honetan ospatuko da IX. Dantza Eguna. Hauxe da Orbeldi Dantza Taldeak prestatu duen egitaraua.

### "Tranpaldo irekia" emanaldia, 16:30ean Artzabalen

"Herri guztiari dantzatzeke aukera eman nahi diogu, mikrofono irekia emanaldien estiloan", Orbeldikoek aditzera eman dutenez. 2013an edo lehenago jaiotakoei zuzendua dago eta gehienez ere sei laguneko taldetan aritu beharko dute. Hori bai, Tranpaldo irekian parte hartzeko, aurretik eman behar zen izena.

### Orbeldiren dantza ikuskizuna, 19:30ean Oiardo kiroldegian

Urtero legez, "herriko musikariek bate-



Orbeldik ikuskizun berri bat taularatu du larunbatean Oiardo kiroldegian. Aurreko astean entsegu orokorra egin zuten Aginagan.

ra ikuskizun bat eskainiko dugu. Aurten, Sorotan Beleren musika oinarri hartuta 50 minutuko emanaldia osatuko dugu", Orbeldiko kideek aditzera eman digutenez. Sarrera kopuru mugatua izango denez, aurrez eman behar da izena usurbilkultura.eus atarian.

### Igandean Sutegin, 'Mutu' ikuskizuna

Dantza Egunaren aitzakian, Miriam Perez Cazabonen konpainia Usurbilen arituko da. 'Mutu' izeneko ikuskizuna taularatu dute igande honetan Sutegin.

Sarrerakusurbilkultura.eus plataformatik eskuratu ahal izango dira. 'Mutu' ikuskizuna arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

### Datozenak

#### Apirilaren 26an, "Txerto emozionalari" buruzko hitzaldia

Nerea Mendizabal psikopedagogoaren hitzaldietan konfiantza, poza, itxaropena eta maitasuna dira hizpide nagusi. Hitz-Ahok hitzaldi ziklo bat antolatu du Nerearekin eta azkena apirilaren 26koa izango da.

#### Hitzaldiak, online

Aurrekoak bezala, hitzaldi hau ere online emango dute: apirilaren 26an astelehena, 17:30etik aurrera. Pantailatik jarraitu ahal izateko zehaztasun guztiak esteka honetan topatuko dituzue: [udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola](http://udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola)

#### Apirilaren 27an, "Ipuinak Dantzan" ipuin saio musikatua

Apirilaren 27an asteartea, Ana Apika ipuin kontalaria eta Intxixu Valbuena musikaria udal liburutegian izango dira arratsaldeko 18:00etan. Saioa adin guztiei zuzendua dago (6 urtetik beharago heldu batekin lagunduta).

Sarrera doan, baina aldeztu aurretik eskuratu behar da usurbilkultura.eus web orrialdean.

### "Dantza eta generoa" hizpide Sutegin

Oier Araolazarekin abiatuko da Dantza Egunari lotutako egitaraua. Mikel Laboa EHU Katedraren bitartez doktore-tesia egin berri du: "Genero identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntza".

Oier Araolazaren hitzaldia ostiral honetan izango da. 19:00etan, Sutegin.

**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

Sari segurua

Urbil

# Erruletan

**4.000 sari!**

Katiluak, boligrafoak, kirol-jertseak, kamisetak, motxilak, kirol-poltsak, mantalak, aterkiak, koadernoak, zakote-ontziak, bozgorailuak...

**ZATOZ ETA IRABAZI SARI SEGURU BAT**



Get it on Google Play | Download on the App Store

Parte hartzeko, hurbildu zaitez gure Urbil Erruletaren stand-era eta erakutsi zure **DOAKO URBIL APP-EKO IDENTIFIKAZIO KODEA**.

**Parte hartzeko ordutegia.** Astelehenetik ostiralera 16:30-20:30. Larunbata 11:00-14:30 eta 16:30-20:30. Pertsona bakoitzeko parte-hartze bakarra. Maiatzaren 8ra arte edo izakinak agortu arte.

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



# udajolas

2021  
udaleku irekiak

## IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

Udajolas Usurbilen erroladatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago. Uztailaren 5ean hasi eta 30ean amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Gehieneko plaza kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa LABORAL KUTXAKo kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da UDAJOLAS eta HAURRAREN IZEN-ABIZENAK adieraztea:

ES28 3035 0140 34 1400025811  
(Usurbilgo Udaleko kontua)

### Izena emateko epea:

apirilak 19tik 30era (biak barne)

Kuota: 85€

Famili Ugaria: 69€ (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia bidali behar da).

Izen-ematea egiteko lotura:

[www.noaua.eus/bereziak/udajolas](http://www.noaua.eus/bereziak/udajolas)

### Aurkeztu beharrekoa:

(elkartea@noaua.eus helbidera bidali)

- Ordainketa-agiria
- Gizarte segurantzako txartelaren kopia.
- Familia Ugarien kasuan: Familia Ugarien txartela edo Familia Liburuaren kopia

**OHARRA:** Apirilak 30 da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko. Informazio gehiago [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) helbidean edo 688807336 telefonoan.

Guraso-bilera egiterik badago, ekainaren 15ean (asteartea) Sutegiko auditoriumean, 17:00etan. Izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, ordaindutakoaren %100 itzuliko da, betiere debeku edo itxialdiagatik bada.

